

Herni Aldizkaria

# Otamotz

2002ko abendua 82. alea



## Mikel Alustiza, kaletik mendira Lajarekin

ERREPORTAIA: GAZTE LOKALA

ELKARRIZKETA: AGUSTIN ZABALO

IZERDI PATSETAN: OSTADARREK FELIX IÑURRATEGI SARIA IRABAZI DU



# Pako Vierbüchen

Fotógrafo

*FOTO LUZ FOTOGRAFOS etxeak bakarlanean hasi behar du. Hori dela eta bere denda berria aurkeztu nahi dizue. Denda hau Legazpi kaleko 5ean dago, bere aita 1956an lanean hasi zen toki berean. Bertan, beraiekin 30 urte baino gehiago daramatzan Elisa lankide eta laguna ere izango da.*

## ESTUDIO-LANAK

- Estudio profesionala.
- Jaiotzetako argazkiak.
- Jaunartzeak.
- Talde argazkiak.

...

**EGUNEAN BERTAN!**



## EZKONTZAK

- Zure ezkontzako erreportajea zure gustura.
- Prezio interesgarriak.
- Eska ezazu aurrekontua inongo konpromisorik gabe.
- Erreportaje sozialak, bataioak, etab.
- Bideo profesionala, VHS eta DVD formatuetan.
- Ezkontza-album digitala.
- Ezkontza-gonbidapenak, normalak eta digitalak.

- ARGAZKIGINTZA MATERIALA
- ARGAZKI ETA BIDEO KAMERA DIGITALAK
- ARGAZKIGINTZA DIGITALERAKO OSAGARRIAK
- ARGAZKIGINTZA DIGITALEAN AHOLKULARITZA PROFESIONALA


## LABORATEGI DIGITALA

- Argazki errebelatuak.
- Diapositibatik argazkira.
- Merkatuko txartel digitaletatik argazkira.
- Karnet argazkiak unean bertan, egutegiak, zoriontzeko txartelak, etab.
- Argazkien duplikatuak unean bertan, anpliazioak, argazki-zaharberritzea, argazki-dekorazioa, indize-kopia, argazkiak CD formatoan.

**EGUNEAN BERTAN!**

**HAU GUZTIA, ASTE GUTXI BARRU,  
ZUMARRAGAKO LEGAZPI KALEAN!!**





1972-73 ikasturtean Ikastolan ateratako argazkia.

1. ?, 2. Jose Antonio Anduaga, 3. Ana Agirre, 4. Juan Luis Elizondo, 5. Luzia Okariz, 6. Anuska Manzanos, 7. Gorka Rodriguez, 8. Jorge Enrique, 9. Jon Legaristi, 10. Julen Garralda, 11. Xabier Chico, 12. Jose Migel Lete, 13. Ibon Glez. de Audikana, 14. Idoia Bastida, 15. Xabier Urmeneta, 16. Iker Mozo, 17. M<sup>a</sup> Pilar Mtnez Ezkerekotxa, 18. Arantxa Narbaiza, 19. Kristina Enrique, 20. Mirari Bahamonde, 21. Joseba Etxeberria, 22. Karmele Gisasola, 23. Karmele Pozueta, 24. Agurtzane Iturbe eta 25. Jose Migel Alvarez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73  
**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>  
**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



# Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599



## Kartelgile gaztetxoei sariak

Urtero bezala aurtengo Gabonetako ere Zumarragako Udaleko Gizarte Zerbitzuek Gazte Astea antolatu dute. Abenduaren 26tik urtarrilaren 3a bitartean 8 eta 17 urte bitarteko herriko gaztetxoek hainbat ikastaro eta ekitalditan parte hartzeko aukera izango dute.

Gazte Astea iragartzeko urtero kartel lehiaketa antolatu ohi da. Lehiaketa honetan Urretxu eta Zumarragako ikastetxe guztietako haurrek parte hartzen dute. Aurtengo lehiaketako sari banaketa azaro erdialdean izan zen Zumarragako Itarte Etxean. Bertan haur eta guraso ugari izan ziren.

7 eta 10 urte bitarteko ikasleen kategorian lehen saria Gainzuri Ikastetxeko Bikendi Zendoiarentzat izan da, bigarren saria La Salle-Legazpi Ikastetxeko Aitor Paulerentzat eta hirugarren saria ikastetxe berean ikasten duen Cristina Ranentzat.

11 eta 13 urte bitarteko ikasleen kategorian, berriz, irabazleak Urretxu-Zumarraga Ikastolako Maialen Zubizarreta eta Ane Gindulain izan dira. Bigarren saria La Salleko Igor de Domingo eta Ruben Calvok irabazi dute eta hirugarrena Urretxu-Zumarraga Ikastolako Idoia Mendiak eta Amaia Landak. Zorionak guztiei!



## Gabonetako pinuen bilketa

Sasieta Mankomunitateak aurtengo Eguberrietarako Gabonetako pinuen bilketa antolatu du, ondoren bildutakoak birziklatu eta ongarri bihurtzeko. Bilketa hau azken urteotan herritarrek egin dituen eskaerei erantzuna ematearren antolatu dute.

Pinuak herri bakoitzean traste zaharrak bilzen diren egunean utzi behar dira, apaingarririk gabe noski, zabor-edukiontzien aldamenean: Ezkio-Itsason urtarrilaren 24an, Legazpin urtarrilaren 11an eta 18an, Urretxun 10ean eta 17an eta Zumarragan 9an eta 16an. Bilketa goizez egingo denez, pinuak bezpera iluntzean atera behar dira.

Gabonetako pinu hauek berriro landatzea ezinezkoa da etxe barruetan asko hondatzen direlako, baina kalitate oneko ongarria egiteko balio dute. Pinuak lehendabizi txikitu egiten dira, aireztapena, tenperatura eta hezetasuna baldintza egokietan kontrolatu ondoren, ongarria lortzeko. Prozesu honek 5-6 hilabete behar izaten ditu.

Ongarri hau oso estimatua da gure herrietako berdegunetako mantentze-lanetarako, batez ere landareak aldatzen diren garairako.

Bestalde, ildo hau lantzeko asmoz, aipatu datorren urtean Sasietak herritarrek etxean bertan konposta egiteko esperientzia bultzatu nahi duela. Horretarako hitzaldi edo ikastaro txiki bat antolatuko da. Honen berri zehatzagoa datorren urtearen hasieran emango dugu.

Sasieta, Gabonetako pinuen kontuaz eta hitzaldietaz gain, beste ekimen batzuegatik ere bada albiste. Aurtengo Gabonetan ere, azken bi urteetan bezala, Sasietak mahai gainean jartzeko egutegia buzoneatuko du Goierriko etxe guztietan. Bestalde, [www.sasieta.net](http://www.sasieta.net) web orrian, beste informazio askorekin bat, azkeneko lehiaketan sarituak izan zaretenon zerrenda dator. Esan, hauen guztien artean Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako lagun asko daudela.



## Ostiralean jakingo da eskaparate lehiaketa nork irabazi duen

Argazkian ikus ditzakezuen Iñaki Fidalgok (Bi-Tartean Urretxu-Zumarragako Merkatarien Elkarteko lehendakaria), Aitor Esnalek (Zumarragako Kultura zinegotzia), Jon Aldamak (Urretxuko Kultura zinegotzia) eta Josune Telleriak (UGGASako kidea) aurkeztu zuten aurtengo eskaparate lehiaketa Zumarragako Udaletxean.

Iaz bezala, aurten ere euren eskaparatea Gabonetako apaindu duten merkataritari guztiak ari dira lehiaketan parte hartzen izena eman beharrik gabe.

Epaimahaikideek Santa Lutzi egunean ekin zioten bi herrietan zehar ibili eta eskaparate guztiak begiratzeari.

Sari banaketa hilaren 20an izango da, eguerdiko 1:15etan, Urretxuko Udaletxean. Irabazleak 300 euro eta estatua jasoko du. Bigarrenak, berriz, 240 euro eta estatua jasoko ditu eta hirugarrenak 180 euro eta estatua. Laugarrenarentzat 120 euro eta diploma izango dira eta bosgarrenarentzat 60 euro eta diploma. Bi-Tarteanek bazkide onenari garaikurra eta 120 euro emango dizkio.



# ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRETXU

### MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31  
ZUMARRAGA

*Narmanki*

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA  
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



**OSINALDE**  
KRUSANDEGIA  
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06  
ZUMARRAGA



**GUREA**


Iturgintza

Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU




# Santa Lutzia 2002



## Haragitarako

- Zaldirik onena: Secundino Gonzalez (Beasain).
- Behorrik onena: Oscar Otxoa (Zalla).
- Urteko moxalik onena: Oscar Otxoa (Zalla).
- Eskualdeko lote onena: Blas Peñagarikano. (Gabiria).



## Pottoka, "A" atala

- Zaldia, 1. saria: Narciso Arrillaga (Zubieta).
- Zaldia, 2. saria: Erik Linazasoro (Bergara).
- Zaldia, 3. saria: Jose Mari Lopez (Donostia).
- Behorra, 1. saria: Zaldibi Aralar Pottoka Elkarte.
- Behorra, 2. saria: Patxi Aranburu (Orio).
- Behorra, 3. saria: Jose Mari Lopez (Donostia).
- Urteko moxala, 1. saria: Zaldibi Aralar Pottoka Elkarte.
- Urteko moxala, 2. saria: Zaldibi Aralar Pottoka Elkarte.
- Urteko moxala, 3. saria: Patxi Aranburu (Orio).



# Santa Lutzia 2002

## Zumarragako barazki lehiaketa

- 1. Jose Manuel Zabalegi (Martutene).
- 2. Jesus Artola (Anoeta).
- 3. Antonia Murgiondo (Gabiria).
- Eskualdeko lote onena: Antonia Murgiondo (Gabiria).

## Zumarragako errezil sagar lehiaketa

- 1. Aitor Elozegi (Gabiria).
- 2. Manu Iradi (Hernani).
- 3. M<sup>a</sup> Isabel Zumalakarregi (Gabiria).
- 4. Xabier Arratibel (Gabiria).
- 5. Maria Etxezarreta (Gabiria).
- Eskualdeko lote onena: Aitor Elozegi (Gabiria).

## Zumarragako fruta lehiaketa


- 1. Manu Iradi (Hernani).
- 2. Antonia Murgiondo (Gabiria).
- 3. Maria Etxezarreta (Gabiria).
- Eskualdeko lote onena: Antonia Murgiondo (Gabiria).

## Urretxuko barazki lehiaketa

- 1. Antonia Murgiondo (Gabiria).
- 2. Elena Niño (Urretxu).
- 3. M<sup>a</sup> Arantzazu Jauregi (Arama).

## Urretxuko fruta lehiaketa

- 1. Kontxi Izagirre (Antzuola).
- 2. Antonia Murgiondo (Gabiria).
- 3. Miren Agirrezabala (Gabiria).
- Eskualdeko barazki eta fruta lote onena: Antonia Murgiondo.



**RENEDO** argazkiak  
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak  
Labeaga 52-54 F URRETXU  
☎ 725682 ☎ 722292



**MAPFRE**

**Aseguru etxea**

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



# Santa Lutzia 2002



## Euskal arrazako oilaskoak

- 1. Maria Luisa Zuriarrain (Albistur).
- 2. Mari Carmen Uranga (Hernani).
- Zumarraga-Urretxuko oilasko parerik onena: Itziar Agirrebengoa (Zumarraga).

## Arraza arrunteko oilaskoak

- 1. Juan Aranburu (Ezkioltsaso).
- 2. Jose Iturbe (Arrasate).
- Zumarraga-Urretxuko oilasko parerik onena: Pablo Izagirre (Urretxu).

## Eskualdeko ezti lehiaketa

- 1. Patxi Imaz (Legazpi).
- 2. Jose Mari Zendoia (Zumarraga).
- 3. Juan Luis Mendia (Gabiria).

## Ardo lehiaketa

- 1. Bodega Roberto Miguel Blanco. Viña Artuke.

## Euskal Arrazako kapoiak

- 1. M<sup>a</sup> Carmen Uranga (Hernani).
- 2. Iñaki Zabala (Urretxu).
- Zumarraga-Urretxuko kapoi parerik onena: Pablo Izagirre (Urretxu).


## Arraza arrunteko kapoiak

- 1. Sebastian Mujika (Orio).
- 2. Jose Mari Ugartemendia (Errezil).



**Ferretería**


**BRAVO, S.L.**



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA  
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



# Nori oparituko zenioke ikatza aurten egindako lan txarrarengatik? Eta urrea?



**Celso Salgado**

Prestige itsasontziaren kontu honetan errua izan duten guztiei oparituko nieke ikatza. Urrea, berriz, garbiketa lanean ari diren bolondresei.



**Lourdes Arakama**

Ikatza Espainiako gobernuari oparituko nioke, batez ere Euskal Herriarekin duen jarreragatik. Urrea, berriz, bolondres lana egiten dutenei.



**Arantxa Zabaleta**

Ikatza jende askori oparituko nioke. Batik bat Aznar eta bere ingurukoei, Sanz eta bere ingurukoei eta Ibarretxeri, gauza bat esan eta bestea egiten duelako. Urrea ezkutuan lan eginez aurrera egiten laguntzen dutenei oparituko nioke.



**Lili Bulgantzis**

Ikatza Ben Ladeni oparituko nioke. Urrea, berriz, galiziarrei oparituko nieke Prestige itsasontziaren hondoratzeak eragindako kaltea konpentsatzeko.



**Mertxe Sánchez**

Ikatza Aznarri oparituko nioke, Prestige itsasontziaren kontu honetan gauza gehiago eta hobeak egin zitezkeela uste baitut. Urrea Ibarretxeri emango nioke, denak bere aurka baititu.



**Ana Mari Perurena**

Guztiok bai ikatza bai urrea merezi ditugula uste dut. Izan ere, guztiok dugu munduan gertatzen diren gauza txar eta on guztien ardura.

FAMILIA BABES ASEURUA, honako guztiak barne:

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.  
-HORTZ KLINIKAK.  
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.  
-HERIOTZ ASEURUA.  
-ISTRIPU ASEURUA.  
-BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina  
20600 EIBAR  
☎ 943 20 24 70

**La Previsora Bilbaina, S.A.**  
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO  
museoari atxikituriko enpresa



# Gazteen eta euska Gazte Lokala



Hilaren 5ean Gazte Lokala inauguratu zen Zintzo-Mintzok duen egoitzan, Urretxuko Labeaga 12 etxeazpian (Goierrri Kirol Elkartearen eta Aspaceren egoitzaren artean). Lokal hau 12 urtetik 16 urte bitarteko gazteek erabili ahal izango dute, bi baldintza hutsekin: bertako jarduna oro euskara hutsean izatea eta pertsoneri eta bertako materialei zor zaien errespetua gordetzea. Bertan, gazteek, lagunekin solasean lasai egoteko, jokuan aritzeko, gustuko musika entzuteko, ordenagailuak eta internet erabiltzeko, ekitaldiak antolatzeko, lagunak egiteko... aukera izango dute. Oraingoz, Gazte Lokalak ostiraletan 6etatik 8etara eta larunbat eta igandeetan 4etatik 8etara irekiko ditu ateak. Gabonetako eta Aste Santuko oporretan egunero irekita izango da 4etatik 8etara.

Badira urte batzuk Urretxuko Udala eta Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarte gaztediaren eta aisialdiaren alorrean zenbait ekimen elkarrekin burutzeko ahaleginetan elkarlanean hasi zirela. Azken urte honetan gaiari serio heldu eta apustu gogor samar bat egitea erabaki dute.

Ekimen honek arrazoi nagusi bat du: gazteak, gizarteratzen doazen heinean, euskara albora uzten hasten dira eta erdara hartzen dute euren komunikazio hizkuntza. Taldeak geroz eta garrantzi handiago hartzen du eta eskolatik datozen mezuak eta aginduak geroz eta eragin gutxiago dute. Euskara, eskolako

hizkuntza gisa bizi dute eta erdara, berriz, gizarteratzeko tresna aproposena. Era berean, gazte askoren ustez, euskarak ez die euren gazte hizkuntza trebatzeko abantailarik eskaintzen eta erdarak, berriz, erraztasunak ematen dizkie euren artean gazte hizkera propio bat sortzeko.

Euskara edo beste edozein hizkuntza, ez da eskoletan bakarrik ikasten eta gazteek bestelako erregistroak behar dituzte gero kalean hizkuntza beste maila batean erabiltzeko. Hau kaleak bakarrik eskaini eta irakatsi diezaieke.

Euskaltzaleok ezin ditugu gazteak ahaztu, egunen batean eus-



# raren txokoa

kal mundura bueltatuko direla pentsatuz. Gazteek, gazte diren heinean, euren hizkuntza garatzeko aukera izan behar dute, euskaraz erraztasunez komunikatzeko trebetasuna garatu behar dute, eta euren trebeziak beraien artean identifikatzeko hizkuntza sortu. Eskolak bere eginkizuna du, baina gizarteak eta administrazioak, berea.

Hortaz, Urretxuko Udalak, herriko euskara elkartearekin bat eginda, aukera bat eskaini die gazteei: eurentzako leku bat, euren gustuko ekintzak euskaraz egiteko eta elkarrekin, lagun giroan, egoteko aukera eskainiko diena. Honakoak dira Gazte Lokalaren helburuak: 12 urtetik 16ra bitartekoei elkartzeko leku bat eskaintzea, gazteek gustuko dutena euskaraz eskaintzea, aisialdian gustukoak dituzten ekintzak (irteerak, ordenagailuak, musika, jokoak, telebistako saioak, futbol partiduak, dantza,...) jorrazteko aukera emango dien lokala eskaintzea, gazteen arteko komunikazioa bultzatzea eta lagun berriak ezagutzeko aukera ematea, euren lokala kudeatzeko behar dituzten tresnak eta arauak bideratzeko aukera ematea eta euskal kultura jorraztea.

Zintzo-Mintzok eta Urretxuko Udalak garbi dute gazteekin zerbaitegin

nahi badute beraiekin batera egin behar dutela eta ez beraientzat. Hortaz, bidelagun izan behar dira. Gazteek protagonista eta partaide sentitu behar dute, euren iritzi eta nahia kontuan hartuz elkartea eraiki behar da. Askotan Udalak eta Zintzo-Mintzok ez dute gauza handirik egin beharko, nahikoa izango da hitz egiteko lekua eskaintzea. Beste batzuetan, berriz, gustuko tresnak eskaintzea edo ekitaldi eta irteerak proposatzea izango da euren lana.

## Gazte Lokala erabiltzeko baldintza bakarrak bertan euskaraz aritzea eta elkar errespetatzea dira

Gazteekin batera, begirale taldea izango da, gazteak eta lagun giroa bultzatzeko prestatua. Adinez urte batzuk zaharragoak izan arren, erraz identifikatuko direnak eta hurbil izango dituztenak. Begirale arduradu-



## BIONA

### AROTEGIA

#### Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa.**

*fundazioa*  
*fundación*

## EDURNE

### JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



*Lanbeto.*

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

## Keros


Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



nek hilero jarduera egitaraua prestatuko dute, beti ere gazteen nahiak eta gustuak kontuan hartuta, baina proiektu honen helburuekin bat eginda. Hiru multzotan bana daitezke jarduera horiek: gela barruko jolasak eta entretenigarriak (mahai-jokoak, bideo emanaldiak, telebista, musika...), jardura didaktikoak (ikastaroak, hitzaldiak, tailerak...) eta kanpoko jarduerak (mendi-irteerak, kirol txapelketak...).

Lehen urtea oso garrantzitsua izango da proiektu honetan. Izan ere, Udal arduran eta Zintzo-Mintzoko kideen ustez, gazteak erakartzeak dituen zailtasunez gain, hauek bultzatzaile eta dinamizatzaile bihurtzeaz gain, bertan eutsi ahal izateko ahalegin handia egin beharko dute. Aurrera begira, gazte txokoak, beste edozein elkarte edo taldek bezalaxe, barne-araudi bat beharko du, eta gai hori ere Zintzo-Mintzoko zuzendaritzak, udal ordezkariak, begirale-



ek eta gazteek elkarlanean jorratuko dute.

Orainarteko lana Udalak eta Zintzo-Mintzok egin dute, baina hemendik aurrera gazteak izango dira protago-

nista nagusiak. Gazte Lokala izena bera behin behinekoa da eta bazkide izango direnek jarriko ahal izango diote behinbetikoa.

10 urte zurekin

Zorionak eta urte berri on!!



Aurtengo Eguberrietarako GABONETAKO PINUEN BILKETA antolatu du Sasietak, ondoren bildutakoak birziklatu eta ongarri bihurtzeko. Bilketan parte hartzeko, mesedez, pinuak garbi atera, apaingarririk gabe eta utzi edukiontzia aldamenen, herri bakoitzean traste zaharrak biltzen diren egunetan.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta 2003an ere zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.



# Mikel Alustiza, kaleko girotik mendira Lajarekin



Mikel Alustiza panderojoleak "Eguzki begi" diskoa kaleratu berri du Iñaki Garmendia, Laja, trikitilari azkoitiarrarekin. Mikel 13 urte besterik ez zituela hasi zen panderoa jotzen Zumarragako Trikitixan eta duela hiru urte, Landakanda bikotea gaixotu zela eta, Laja trikitilari azkoitiarraren deia jaso zuen. Orduetik, Zumarragako Trikitixarekin eta Lajarekin aritzen da, baita euskal kantagintza jorrazten duen herriko Ostebe taldearekin ere.

## Nolakoak izan ziren zure hastapenak trikitixa munduan?

13 urterekin hasi nintzen. Etxean beti bizi izan dut mundu hau eta asko pentsatu gabe hasi nintzen: Santa Isabel batzuetan osabek jo nahi nuen galdetu zidaten eta pixkanaka sartzen joan nintzen. 16-17 urterekin jada erabat sartu nintzen. Entzun eta ikusten nuenarekin ikasi nuen. Osabek ez zidaten sekula esan "hau horrela egin behar da". Hasieran ez nuen kantatzen baina konturatu nintzenerako kantatzen ari nintzen. Gainera, Zumarragako Trikitixaren ezaugarri bat kantutarena izan da.

**Lotsa pixkat ere emango zizun halako pla-**

## zagizonekin hastea...

Bai, gainera garai hartan trikitixa gauza arraro bat bezala ikusten zen. Nire lagunek parre pixka bat egiten zutela gogoratzen dut: "jode, pandereta jotzen!". Edadea zela eta lotsa pixka bat ematen zidan, baina gustatzen bazaizu hori berehala pasatzen da. Niretzat errazagoa izan da osaben babesean egotea. Prozesu bat izan da eta azkenean plazagizona egin naizela uste dut.

## Aholkuak ematen al zizkizuten?

Ez dira sekula oso espresiboak izan. Ni beti beraien ondoan izan naiz eta gehiegi esan gabe ikasi egiten da: nola begiratzen duten ikusiz... Sekula ez didate bronkarik edo



antzekorik bota. Etxera joaten nintzen eta letrak gogoratzen edo apuntatzen saiatzen nintzen.

### **Makina bat plaza ezagutuko dituzu...**

Erromeria gutxitan izan gara. Gurea gehiago izan da kaleko eta festetako giroa. Leku baten ordu askotan jotzea baino gehiago ibiltzea izan da. Horrela jende asko ezagutzen da eta gauza bitxi asko ikusten dira.

### **Trikitixa kalera ateratzea izan al da Zumarragako Trikitixaren ekarpen nagusia?**

Bai, beste trikitilariak gehiago izan dira mendiko trikitilariak. Hemen horrela tokatu da. Bestalde, jotzeko eran pertsonaje klabea Jose Migel Ormazabal izan zen. Gure osaba berarekin hasi zen eta bere eskola jarraitu du, nahiz eta gero berak bere gauzak landu eta bere ikutua eman.

### **Nola ezagutu zenuen Laja?**

Trikitilari Egunak eta horrelakoak zirela medio ezagutzen ginen, baina ez nuen berarekin amastade handirik. Duela hiru urte, Esteban Larrañagaren bitartez, bere etxera joateko gonbitea heldu zitzaidan. Asuntua Landakanda gaixotu egin zela eta bakarrik zegoela zen. Laja betidanik kantatzen duen panderojolearekin ibili denez, kantatzen zuena behar zuen. Neure bizimodua nondik nora zihoan eta zenbateraino lagundu niezaiokeen esan nion. Probak egiten hasi ginen eta aurrera jarraitu dugu.

### **Erabakia hartu aurretik asko pentsatu al zenuen?**

Bai, batez ere familia dela eta. Izan ere, banekien zer etorriko zen. Ume txiki bat dago tartean eta ordu asko galtzen dira. Ordu hauek umeari kendu behar zaizkio. Baina pertsonalki erronka handia zen eta aurrera egin nuen, ez dakit noiz arte.

### **Elkarrekin erraz moldatu al zineten?**

Nahiko ondo moldatu ginen bai. Gainera Laja maisua da eta berehala moldatzen da. Niretzat oso esperientzia polita da berarekin jotzea.

### **Alde handia al dago Zumarragako Trikitixaren eta Lajaren artean?**

Nik esperientzia banuen, baina ez nengoen berak egiten duen trikitixa egitera ohituta. Ni kaleko girora ohituta nengoen eta hau beste kontu bat da: leku batean hiru

edo lau orduz jo behar duzu eta horretarako erreperitorio luzea izan behar duzu. Pixka bat gogorra izan zen hasieran. Bestalde, estiloak ere ezberdinak dira: Lajarena teknikoagoa da eta dantza egiteko da. Bere ingurua ezberdina da eta horrek jotzeko eran ere eragina du. Dena den, osaba Joxeren jotzeko era "intokablea" da niretzat. Nire ustez egon den trikitilari pertsonalena da.

**“Ezin gara gauza berriak egiten hasi, gure jotzeko era trikitia baita”**

### **Egun plaza guztietara Lajarekin joaten al zara?**


Ahal dudanean laguntzen diot, Zumarragako Trikitixarekin ditudan konpromisoak mantentzen baititut eta Ostebiko lagunekin ere aritzen bainaiz. Dena den, gehienetan berarekin joateko aukera izaten dut.

### **Nola sortu zen diskoaren kontua?**

Lajaren zazpigarren diskoa da. Bera beti dago gauza berriak egiteko lanean. Materiala prest zuen, zer egin zitekeen ikusi genuen eta Elkarri planteatu genion. Maiatzean grabatu genuen eta urria bukeran atera da. Elkarren estudioetan grabatu genuen, Donostian, eta ekoizlea Juan Carlos Perez izan da.

### **Kontu hau zuretzat berria izango da...**

Gauza asko ikasi ditut. Teknikoek asko laguntzen dute: gu gure piezekin joan ginen eta beste guztia eginda dago. Guk jo





**Zer nolako diskoa da?**

14 kantu ditu, hauetatik 10 trikitiak, porrusaldak... dira. Gainontzeko kantuetan beste musiko batzuen laguntza izan dugu: kontrabajoa, perkusioa eta gitarra. 4 kanta hauek gure erara landutako kanta tradizionalak dira. Gure asmoa disko honetan



erromeria bat islatzea izan da. Ezin gara gauza berriak egiten hasi, gure jotzeko era trikitia baita. Beste lau abestietan kantuetan, ordea, kantua potentziatu dugu.

**Zer moduz doa promozio lana?**

Lan pixka bat ematen du: irratietara joan behar gara, elkarrizketak... baina egin beharreko gauzak dira. Ez nuen halako promozio lanik espero eta Lajak ere ez. Nahiz eta disko asko egin dituen, kontu honetan ez du esperientziarik. Orain promozioari garrantzia handia ematen zaio, batez ere Elkarren.

**Denetarako astirik ba al duzu?**

Askotan nahiko larri nabil. Etxean egoteko astirik ez dut ia, baina behin produktu bat kalean dagoenean saiatu egin behar zara eza gutzera ematen. Oso estresantea da. Joan zen larunbat goizean Zumarragako Trikitixarekin Tolosan izan nintzen, arratsaldean Ostebi taldearekin ere Tolosan izan nintzen eta gauen Landetan jo nuen Lajarekin. Igandean, berriz, Zumarragako Trikitixarekin saioa izan nuen Zumaian. Gainera, lanera joan beharra dago... bolada txiki bat izatea espero dut! Dena

den, negu aldean saio gutxiago izaten dira eta denok eskertuko dugu.

**Ostebirekin ere aritzen zara...**

Ostebi "relax" modukoa da taldekoentzat. Denok oso lanpetuta gabiltza baina beti ateratzen da zerbait. Hor gozaten dugu gehiago. Jende askok ez dakien arren, Ostebiko lagunak musika munduan lan handia egiten ari dira. Guretzat eskape moduko bat da, gustuko lana egiten baitugu. Zumarragako Trikitixarekin eta Lajarekin jende batekin kunplitu beharra dut. Ostebirekin, berriz, gozatu egiten dugu eta ateratzen dena jendeari erakusten diogu baina konpromiso handirik gabe. Sekula ez diogu gure buruari helburu handirik jarri, bere xarma galduko bailuke.

**Nola ikusten duzu trikitixaren egoera?**

Jotzaile aldetik kristoren iraultza egon dela ikusten dut. Jende asko dago eta oso gauza ezberdinak egiten dira. Baina partaidetza aldetik nahiko pobre dago kontua. Erromerietako kontua gainbehera doa, berbenetan ere berdin gertatzen da. Jende gaztea ez da ikusten eta dantzan gutxiago. Entzuteko jendea badago eta gazte askori interesatzen zaio, baina dantzaren kontua makal dago. Plaza batean bakarrik egotea oso gogorra da. Lajarekin ez zait gertatzen, aspaldiko trikitilaria baita, betiko lekuetara joaten baita eta bere inguruan berak jotzen duen leku gehienetara joaten den jendea baitu.

## “Niretzat ohore handia izan da bi maisurekin aritzea”

**Gustuko trikitilaria?**

Ni beti oso itsua izan naiz nire osabarekin, batez ere bere izakeragatik. Laja ere muntro bat da. Ezagutu aurretik miresten nuen, baina orain punttua hartu diot. Askok eman dezakeela konturatu naiz. Bere garaian berritzailea izan zen. Bera izan zen diskoetan duoak sartu zituen lehena, soinu handiari hurbildu zitzaion... Orain berrikuntza hauek ez ditugu aintzakotzat hartzen, baina duela 20-30 urte berrikuntza izango zen. Niretzat ohore handia izan da bi maisurekin aritzea.

**Gustuko panderojolea?**

Familia utzi egingo dugu, bestela fanatikoa naizela esango dute. Hiru aukeratuko nituzke: Landakanda, Iturbide eta Leturia. Kanturako Landakanda eta Leturia oso onak izan dira, baina Iturbide sekulakoa da panderoa jotzen. Panderojole batek giroan sartzen, jendea erakartzen eta plazagizona izaten jakin behar du.

**Gustuko plaza?**

Santa Isabeletako erromeria sekulakoa da. Aia San Pedroko erromeria ere ederria da, baina hemengoak gehiago esaten dit.

**Bereziki gustura jotzen duzun abestirik?**

Euskal kantagintzako gehienak. "Oi ama Euskal Herria", Pier Paul Bersatzeren "Baratze bat"... Momentuaren arabera abesti batek gehiago esaten dizu beste batek baino. Oso zabala da mundu hori.



# Agustin Zabalo:

## sukaldari teknikoa

# “Gure helburua sukaldean dabilzaneinei lana erraztea da”

Gure etxeko sukaldean erabiltzen ditugun gailuek, merkatu-ratu aurretik kalitate froga zorrotzak pasatzen dituztela badakigu. Baina, seguraski, zuetako askori ez zitzaizuen sekula otuko (guri ez behintzat) elektrogailu enpresek labeak, sukaldeak, lapikoak... frogatzeko eta hobetzeko sukal-

dariak dituztenik. Fagor enpresako sukaldaria Agustin Zabalo zumarratarra dugu eta berarekin hitz egiten izan gara Fagorren Arrasateko Garagartza auzoko lantegian Agustinek duen sukaldean. Fagorreko langileek majo eskertzen dute Agustinen sukaldea gertu izatea!

### Agustin, nolatan zabilzta lan honetan?

Ez nituen sukaldaritzza ikasketak egin, baina hona heldu aurretik Fagor Industrialen aritu nintzen hoteletan eta jatetxeetan erabiltzen diren sukaldeak montatzen eta frogatzen. Duela 17 urte "sukaldari tekniko" lanpostua sortu zen eta hona etorri nintzen, etxeetan erabiltzen diren labe eta sukaldeekin lan egitera. Lanpostu hau beharrezkoa da, egunean egoteko eta kompetentziak egiten duen berri izateko.

### Zertan zabilzta momentu honetan?

Momentu honetan 2004an atera behar dugun labe berri bat prestatzen ari gara. Hori dela eta, kompetentziakoek ateratako azken labeak probatzen ari naiz eta, ondoren, informeak bidaltzen dizkiet injeniariei. Injeniariei behetik, goitik eta atzetik berotuko duten labeak egiteko eskatu diet. Aldiro toki batetik berotuko dute, zirkuitu moduan. Bestalde, errezeta automatikoa ere izango dute. Hau da, janari bakoitzari dagokion botoiari eman eta ez dago tenperatura zehaztu beharrik. Gure lana sukaldean dabilzaneinei lana kentzea eta lana ahalik eta gehien erraztea da.

### Beste berrikuntzarik bultzatu al duzu azkenaldian?

Esate baterako, orainarte labeek ez zuten 50°-tik behera berotzerik eta frogak egin ondoren 35°-taraino jaistea eraba-

ki genuen. Zertarako? Ogiaren eta hostorearen (hojaldrearen) fermentazioa, jogur-rak... tenperatura horretan egiten direlako. Garai batean gutxieneko tenperatura hori jarri genien gure labeei eta egun kompetentziako enpresak ere hori jartzen ari dira euren labeei.

### Zer alde daude sukaldari arrunt baten lanaren eta zure lanaren artean?

Sukaldaritzza lana egin ondoren, labeen eta sukaldeen informeak egin behar dira: kompetentziko sukaldeak frogatu behar dira, zer berrikuntza dituzten ikusi, injeniariei zer berrikuntza egin daitezkeen

“Bitrokeramika onaden arren, indukzioa askoz ere hobea da: azkarra, garbia...”

esan... Fagor industrialen aparatuak montatzen lan egiten nuen eta hona etorri aurretik ederki asko ezagutzen nituen labeak. Lan honetarako aparatuak barru-barrutik ezagutu beharra dago. Horretaz gain, labe eta sukaldeek daramatzaten liburuxketako errezetak ere nik prestatzen ditut. Horretarako, errezeta hauek guztiak labe



eta sukalde hauetan prestatu behar dira. Izan ere, liburuxketan zehatz-mehatz adierazten da nola prestatu behar diren.

### Fagorek mundu guztian saltzen duenez, herrialde ezberdinetako sukaldaritzza ezagutu beharko duzu...

Hala da. Horretarako beste herrialdeetako enpresek ateratzen dituzten liburuxketan eta gure delegazioek bidaltzen diguten informazioan oinarritzen naiz. Ingalaterrako delegazioak, esaterako, gosari ingelesa egiteko balio duen labea eskatzen digu. Hori dela eta, Ingalaterran saldu nahi badugu, grill berezia duten labeak egin behar ditugu. Toki batzuetarako labe bereziak egiten ditugu. Dena den, labe gehienek mundu guztirako balio dute.





Muntaiak eta Instalazioak Enpresa  
**HERCE**  
Elektrikotasun M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETUXU

**TABERNA**

*Geureta*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

**belar-zain**

Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80  
URRETUXU

**Herri Aldizkaria**  
**Otamotz**

aldizkarian publizitatea  
sartu nahi baduzu, deitu  
943 03 64 74 telefonora.  
**Merkea eta ona!**

**URKI**  
liburudenda

Secundino Esnaola, 3  
☎ 943 72 42 98  
ZUMARRAGA

**Ferietara ere joaten al zara sukalde eta labeak nola dabilozan erakustera?**

Urtean dozena erdi bat feria izaten dira. El Corte Inglés-en, esaterako, gastronomi astea antolatzen dute eta astebete ematen dut bertan jendearen aurrean kozinatzen. Bitartean jendeak etengabe galderak egiten dizkit. Lanbide honetan saltzailea ere izan beharra dago!

**Garai bateko sukaldearen eta egungoaren artean sekulako aldea dago. Zein da zure ustez egungoen ekarpen nagusia?**

Programazioa. Atzo goizean emaztea eta biok Gabirian eta Liernin izan ginen. Baserriko oilaskoa labean utzi genuen eta etxera heldu ginenean, orduntxe ari zen labea bere lana bukatzen. Lasai asko utzi

dezakezu janaria etxean egiten eta alde egin.

**Sukaldea erosi behar duenarentzat gomendiorik ba al duzu?**

Sukaldean ibiltzen diren gehienek bitrokeramika dute buruan sartua baina, nahiz eta ona izan, indukzioa askoz ere hobea da: azkarragoa, garbiagoa... Nire emazteak bitrokeramika nahi zuen, baina mistoa erosi genuen. Gure etxean bitrokeramika ez du inork erabiltzen, erabiliz gero garbitu egin behar baita. Indukzioak garestiagoak dira, baina askoz ere hobek. Inkesta asko egiten ditugu eta jendea indukzioa askoz ere hobea dela garbi ikusten hasi da. Frantziako enpresa baten inkesten arabera, datorren urtean bitrokeramika eta indukzioa parean jarriko dira.





**Ainhoa**, hori da hori irrifarra! Olentzero aurtan oso ondo portatu behar dela jakin al duzu? Zorionak eta ondo ibili!



**Ainhoa**, bihurrikeriaren bat prestatzen ari al zara? Olentzero heldu bitartean behintzat ondo porta zaitetz! Zorionak!



**Aitor**, Kilometroak festan ala "Supervivientes" telebista saioan aterata al zizuten argazki hau? Zorionak!



**Ana**, benetan dirudien bezain txintxo zara ala Olentzerok opariak ekarri bitartean txintxo plantak egiten ari al zara? Zorionak!



**Andoni**, hori da hori lotsati aurpegia duzuna... gurasoak eta irakasleak ere iritzi berdinekoak ote dira? Zorionak eta ondo ibili!



Hara zer nolako baserritar pareta aurkitu genuen Santa Lutzi egunean! Ez dakigu astorik edo behorrik saldu zuten, baina ez dugu uste adarra joko zietenik... Zorionak Mikel&Mikel eta segi orainarte bezain txintxo!



**Iñigo**, gorbata lepoan eta irrifarra ahoan... Perretxiko bila ere gorbata lepoan duzula joaten al zara? Zorionak!




**Jairo**, senitarteko asko baino sarriago ikusten zaitugu... Zenbat aldiz zoriondu zaitugu jada? Zorionak aurtan ere!



**Javier**, egun haue-tan eliza jendez gainezka izango delako al zaude horren gustura? Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Jesus Mari**, beti txapel bera buruan duzula azaltzen zara, dagoeneko buruari itsatsita izango duzu... Zorionak!



**Jevi**, oraingoan ez gaituk hire ilearekin eta musika zaletasunarekin sartuko, dagoeneko gogaituta izango haiz eta! Zorionak!




**Jose Luis**, gaztetxo guztien artean sartu zara... zu ere gazte sentitzen zaren seinala! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Julen**, dirudien bezain txintxo al zara? Hala bada gurasoak gustura asko izango dituzu! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Julene**, uztazu behingoz biloba lurtean bestela ez du oinez ibiltzen ikasiko eta! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Luis Mari**, badakigu garai bateko neguak egungoak baino gogorragoak zirela, baina jertsea sorbaldan eramatea ez al da gehiegizkoa? Zorionak!



**Maialen**, zer eskatu diozu Olentzerori? Mototxa zutik egon dadin erabiltzen duzun "gomina" beharbada... Zorionak!



**Maria Jesus**, hori da hori irrifarra... igarleren batek hila-ren 22an loteria tokatu behar zaizula esan al dizu? Zorionak!



**Mikel**, Gabonak direla eta jada urduri zaudela dirudi... lasai motel, zuretzat ere opariren bat izango da eta! Zorionak!



Hori da hori irrifarra... ziu-raski neskatxa hau Olentzeroren kuttu-netako bat izango da! Zorionak eta ondo ibili, **Neike!**



**Pilar**, argi ibili alboan duzun horrekin, lehenago edo beranduago adarra jotzen hasiko zaizu eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Udane**, alaitu zaitetz pixka bat neska, Olentzerok zuretzat ere zer edo zer izango du eta! Zorionak eta ondo ibili!



**Unai**, hori da hori harridura aurpegia duzuna... Olentzero tabernaren batean baxoerdi ardo edaten harrapatu al duzu? Zorionak!



**Amaia**, parre egitea oso osasuntsua da, baina begiak itxita eramateagatik paretajotzea ez horrenbeste! Zorionak eta ondo ibili!



Azkenaldian gaizki samar portatu delako semearen alboan jartzea erabaki al duzue? Badakizue, Santa Lutzi feria dela, bestea dela... Anes beti parrandarako prest! Lasai, bera ere egunen batean formalduko da eta! Zorionak **Tomas eta Maria** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



**Anes**, oraingo honetan ez gara zure neska kontuetaz arituko bestela halako batean gurekin hasarratuko zara eta! Zorionak!



**Monse**, zu ere, "Cuéntame" telebista saioa dela eta, 60 eta 70 hamarkadetako modaren jarraitzaile bihurtu al zara? Zorionak!



# BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



## Maitane Anduezari eta bere aitari eginiko elkarrizketa dela eta

Otamotz aldizkaiak, 81. alean, 2002 ko azaroakoan hain zuzen, Maitane Anduezari ustez egindako elkarrizketa argitaratu du. Bertan, nere aurka esandako zerbait agertzen denez, neri dagokidan erantzuteko eskubidea erabiliz, honako hau ematen dut argitara:

1. Esan ez duena inoren ahotan jartzea onartezina iruditzen zait; batez ere, kasu honetan gertatu den bezala, pertsona hori adin txikikoa bada. Aldizkarian nire aurka agertzen diren hitzak bere aitak botatakoak badira -eta hori horrela izan dela aitortu dit aldizkariaren arduradun batek- ez dut ulertzen zergatik Otamotzen Maitaneren ahotan jarri duten.

2. Gezur hutsa da Maitanek edo bere aitak proposamen bat egin zutela. Izan ere, ez nien aukerarik eman. Proposamena aurkeztu zuen bakarra neu izan nintzen, eta aitak ez zuen onartu. Proposamena idatziz egin nuen, eta norbaitek ezagutzeko interesa badu, Maitaneren aitari edo neri eskatu besterik ez du.

3. Asko dira bizikletaz egin daitezkeen kirol edo ikusizun-jarduerak. Denak, ordea, ez dira sartzen Goierri, K.E.ren Txirrindularitza Atalak sustatutako planetan. Trialsina bat gehiago da, eta seguraski hori da praktikatzaile gutxien duena. Badaude plan horietan

sartzen ez diren beste batzuk ere, hala nola, mendiko bizikleta, edo pistakoa, eta modalitate horiek praktikatzen dituztenek ere ez dute Goierriatik dirulaguntzarik jasotzen. Beste hainbeste gertatzen zaie errepideko modalitatean aritzen direnei, atalak onartutako egutegitik at dauden frogetara joaten badira.

4. Maitane Anduezaren aitak edo besteren batek uste badu nire kargua ez dudala betetzen behar den bezala, konponbide erreza du: Goierri K.E.ko kide egitea, eta kargua eskuratzea; nire aldetik ez nioke trabarik jarriko. Bitartean, nerek jarraituko dut, Goierri K.E.ren Asanbladak besterik ez badu erabakitzen, eta jarrera bera mantentzen dut; hau da, gaur egun Goierri K.E.ak bere planetan ez du sustatzen ez trialsina, ez mendiko bizikleta, ezta pistakoa. Hala ere, Maitaneri iaz egindako proposamenari bere horretan eusten diot. Gainera, nik jasotako berrien arabera, Goierri egindako proposamena Lazkaon jasotakoa baino hobea da.

Urretxun,  
2002ko abenduaren 4an.

Xabier Egea Jauregi  
Goierri K Eren Txirrindularitza  
Ataleko Ordezkarria

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA

**Pisua salgai  
Zumarragan**

Soraluze, 1. eskuina  
☎ 943 72 14 17  
☎ 943 72 19 94



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎ 943 726274  
ZUMARRAGA



# Zorionak Ostadar!

## Foru Aldundiaren Felix Iñurrategi saria jasoko du euskararen alde egindako lanagatik



2002ko uztaila, "El Casco" mendia (Pirinioak). Argazkia: Iñaki Urkiola.

Hilaren 20an, arratsaldeko 8etan Donostiako Kurasaalen izango den ekitaldian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Ostadar Mendi Taldeari Felix Iñurrategi saria emango dio euskararen erabilpenaren alde egiten duen lanagatik. Ostadarrek duela 10 urte Zintzo-Mintzorekin euskararen erabilpena bultzatzeko akordioa sinatu zuen eta, orduetik, borondateari eta lan onari esker, euskararen erabilera gazteleraren pare jartzea lortu du. Zorionak eta ea sari honek guztiok zuek markatutako bidea jarraitzeko balio duen!

Urtero bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta

Kirol Departamentuak Gipuzkoako kirol mundua omenduko du aurten ere. Horretarako hilaren 20an, arratsaldeko 8etan, festa handi bat ospatuko da Donostiako Kurasaalean. Bertan, Gipuzkoako kirolaren alde lan egiten duten hainbat talde eta banakako sarituko dira. Sari hauetako bakoitzak kirolari edo kirol bultzatzaile gipuzkoar ezagunak zirenen izenak daramatzate eta kirolaren alor ezberdinetan egindako lana saritzen dute.

Felix Iñurrategi saria kirol munduan euskararen erabilera bultzatzen duen erakunde edo norbanakoari ematen zaio eta aurten Urretxu-Zumarragako Ostadar Mendi Taldeak jasoko du.

Ostadar betidanik saiatu da bere agirietan, prentsa-komunikatuetan eta beselakoetan euskara erabiltzen. Dena den,

duela hamar urte hasi ziren euskararen erabilerrari benetako bultzada ematen: herriko beste hainbat erakundek eta taldek bezala, Zintzo-Mintzorekin akordioa sinatu zute-nean.

Mendi taldeak sinatutako akordioko puntuak aurrera ateratzen saiatu den taldekide bat bada, hau Jonmikel Intsausti da. Jonmikelek esan digunez, "hasierako urteetan ibilaldi guztietan mendizaleei Luis Miguel Gonzalezek prestatutako ibilbideari buruzko informazioa ematen genien. Zintzo-Mintzorekin sinatutako hitzarmenean oinarriturik, eskuorria euskaratzen hasi ginen eta azken hamar urteotan testu guztiak bi hizkuntzatan agertzen dira".

Testuak bi hizkuntzatan idaztera ohitu dira jada, nahiz eta hasieran, normala denez, lan honek bere buruhaustek eman



zituen. "Denborarekin ohitura hartzen da eta hizkuntza menperatzea lortzen da. Egun hiruzpalau lagun gabiltza ibilbideak prestatzen eta testuak idazten. Gehienetan testuak euskarara itzultzen ditugu, baina beste batzuetan alderantziz ere egiten dugu. Testuren bat itzultzeko orduan lexiko mailako zalantzak baditugu, UZEIrekin harremanetan jartzen gara".

Ostadarrek egindako lana bene-tan bikaina da eta, zalantzarik gabe, saria merezi du. Seguraski Gipuzkoan euskararen erabileraren alde lan bikaina egiten duten beste hainbat kirol talde izango dira, baina Foru Aldundiak Ostadar hautatu izana ez da harritzekoa. Izan ere, Urretxu-Zumarragako mendi taldea Euskal Herriko mendi talde ezagunenetako bat bihurtu da bere web orri bikainari esker. 2000. urtean Donostiako Koldo Mixelena Kulturgunea euskarazko web-gune osatuaren aurkezpenak antolatu zituen eta hautatuetako bat ostadar.org

web-gunea izan zen.

Web-gune honek mendizale ororentzat oso interesgarria den informazio zabala eskaintzen du. Orriaren muina Ostadarrek azken urte hauetan egindako irteeren eta beste hainbat mendiren inguru-

## Web-gunea egindako lanaren erakusleihobikaina izan da zalantzarik gabe

ko informazio zehatzak osatzen dute. Baina honetaz gain, beste hainbat gauza ere aurki ditzakegu: eguneratzen saiatzen diren aterpeen zerrenda, mendizaleei euren zalantzak argitzeko posta elektronikoz zerbizua, mendi astearen zein Iñaki Beitiaren

omenezko martxaren informazioa, taldearen historia... Honetaz gain eguraldiaren berri zein mendizaleentzat interesgarriak diren beste hainbat informazio eskaintzen duten beste web-gune batzuen helbideak ere aurki daitezke Ostadarren web-gunean.

Aipatu bezala, web-gune honi esker Ostadar mendizaleen artean oso ezaguna egin da. Foru Aldundiak ere, web-gunearen bidez izango zuen Ostadar euskararen alde egiten ari den lan bikainaren berri. Jonmikel Intsausti ere iritzi berekoa da. "web-guneari esker gure lan guztia ezagutzera eman dugu, egiten dugun lanaren eskapateia da".

Jonmikelek eta Ostadarreko gaitzaren kideek poz handiz jaso dute saria jasoko duten berria. "Gauza pozgarriena bat, kirol talde handia izan gabe gauza onak egin daitezkeela erakustea da. Bestalde, oso garrantzitsua da Donostiatik kanpo egiten den lana ezagutaraztea eta sari honen bidez hori lortuko da".

## Saria, lanean jarraitzeko bultzada

Sari hau egindako lan gogorren saria dela jakinik, Ostadarrekoak lanean burubelarri jarraitzen dute. Duela gutxi Batzar Nagusia izan zuten eta bertan zuzendaritza berria hautatu zuten. Datorren urtebetean zuzendaritzako kideak Javier Fernández, Jonmikel Intsausti, Iñigo Lete eta Aitzol Jauregi izango dira. Mendi taldeko beste hiru kide zuzendaritzari laguntza eskaintzen izango dira.

Zuzendaritza berria zeintzuk osatuko duten erabakitzeaz gain, datorren urteko egitaraua zein izango den ere zehaztu dute jada. Hona hemen datorren urterako Ostadarrek antolatu dituen irteerak:

- Urtarrilak 12**— Gipuzkoa. Azpeitia – Zelatun – ERNIO (1.075 m) – Alkiza.
- Otsailak 9, Lapurdi - Nafarroa Beherea.** Armendaritze – ELTZARRAZU (421 m) – GARRALDA (470 m) – Lekuine (Bonloc).
- Otsailean, Urolako Itzulia. 1. etapa.**
- Martxoak 9, Araba/Nafarroa Garaia.** Kodes-ko Santutegia – JOAR (1.414 m) – LA PLANA (1.333 m) – LA COSTALERA (1.222 m) – Santa Kurutze Kanpezu.
- Martxoan, Urolako Itzulia. 2. etapa.**
- Apirilak 6**— Nafarroa Garaia. Izpegi – AUZA (1.305 m) – Iztauzeko bailara - Arizkun.
- Apirilak 27**— Gipuzkoa. Gipuzkoako Mendi Federakundearen deialdia. MANDOEGIKo zentral eolikoaren kontrako mendi-ibilaldia.
- Maiatzak 11**— Araba. Urizaharra (Peñacerrada) – MORAZA (1.054 m) – TXULATO (946 m) – Burdinkurutzea (Santa Cruz del Fierro).
- Maiatzak 18, Iñaki Beitiaren omenezko VII. Iraupen Luzeko Mendi-Ibilaldia.** Antolatzaileak: Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarte, Aldiri Kultur Elkarte, Urretxu-Zumarragako Ikastola, Goierri Mendi Taldea eta Ostadar Mendi Taldea.
- Ekainaren 14-15ean**— Nafarroa Garaia / Zuberoa
- Ekainak 14: Larrañe – ORHI (2.016 m) – Üthürzeta lepoa (Larrañeko mendatea).
- Ekainak 15: Üthürzeta lepoa – Belai lepoa – OTSOGORRIGANĒ (1.932 m) – Belagua.
- Ekainean, Urolako Itzulia. 3. etapa.**
- Uztailaren 12-13an, Biarno / Huesca.**
- Uztailak 12: Ref. de La Mina (Oza) - Ibón de Atxerito - PIC LARAILLE (2.147 m) – Pto. del Palo – Ref. Arlet.
- Uztailak 13: Ref. Arlet – PIC ARLET (2.207 m) – PIC ACUÉ (2.264 m) – Aguas Tuertas - Ref. de la Mina (Oza).
- Uztailaren 12-13an, Biarno / Huesca.**
- Irailak 14, Araba.** Lagran – LARRASA (Palomares faltsua – 1.453 m) – CRUZ DEL CASTILLO (1.432 m) – PEÑA DEL LEÓN (1.389 m) – SAN TIRSO (1.329 m) – Okongo Andre María – Bernedo.
- Urriak 12**— Nafarroa Garaia. Gorostieta – BEIGANE (1.097 m) – Otsola bailara – IREBER (1.202 m) – ERNAITZU (1.197 m) - Beruete.
- Urriaren 12, Urolako Itzulia. 5. etapa.**
- Azaroak 23-30, XX. Ostadar Mendi Astea.**
- Azaroak 23, XVI. ANJEL ETXEBERRIaren omenezko Haur Ibilaldia.
- Azaroaren 24tik 28ra bitartean— Diapositiba emanaldiak.
- Azaroak 29, Batzar Nagusi Orokorra.
- Azaroak 30, Araba. Arabako mendietan.
- Pinedo – [Alto del] RODIL (1.031 m) – RISCA (1.003 m) – RASO (1.046 m) – Uribarri Gaubea (Villanueva de Valdegobfa). Bazkaria inguruetan.

**Oharra:** Urtean zehar ere beste emanaldiak zein ikastaroak egin ahal izango dira.





## Inma Albisua

Inmari, Zumarragako parrokia aurrean zegoen mojen eskolan bihurrikeriak egiten zituen garai haietan, ez zitzaion burutik pasatuko ere urte batzuk beranduago irakaslea izango zenik. "Ikasle garaiko oroitzen oso onak ditut. Salamancan psikologia ikasketak egiten eman nituen urteetako oroitzenak ere oso onak dira. Etxetik kanpo ikastera joatea denei aholkatzeko moduko esperientzia da".

Inma Bergaran hasi zen lanean, baina 1980an jada herrian zen. "Urretxuko Udalak ikastetxe publikoetan zebiltzan herriko hurrei B eta D ereduak eskaintzeko patronatu bat sortu zuen eta bertan hasi nintzen. Patronatu horrek *Eskola*

*Nazionalak* zituen hainbat *ezaugarri* gainditzea eta, prozesu luze baten ondoren, irakasleen perfila eus-kalduntzea lortu zuen".

Bertan bi urte eman ondoren, Inma Gainzurin lanean hasi zen eta 1987az geroztik ikastetxe honetako zuzendaria da. "Nekea somatzen hasi naiz eta kargua uzteko momentua iristen ari zaidala uste dut". Kargua uzten duenean, karguarekin batera, eraikin berria ere utziko dio bere ordekoari. "Ea datorren ikasturteko bigarren hiruhilabeterako eraikin berria bukatua dagoen!".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dakit. Beharbada medikuntzarekin zerikusia duen zer edo zer, gauza horiek gustukoak baintuen.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Etzanda egotea, irakurtzea, musika entzutea...

### -Bizitzeko toki bat?

Itsasoa eta berdea gertu dituen edozein toki.

### -Lehengo haurrak ala oraingoak?

Haurrak beti haurrak dira. Gizartea da aldatzen dena eta haurrak aldatzen dituena. Egungoek edozertarako aukera gehiago dute.

### -Lehengo gurasoak ala oraingoak?

Elkarlanerako eta elkarrekin hezitzeko prest dagoen edozein. Guraso izatetik lagun izan nahi izatera pasatu gara, baina gurasoa guraso izan behar da.

### -Zure lanetik gehien atsegin duzuna?

Umeekin tratua, batez ere txikiekin.

### -Eta gutxien atsegin duzuna?

Burokraziaz betetako lana da. Askotan pedagogiari eskaini beharko geniokeen denbora paper artean pasatzen dugu.

### -Nor zigortuko zenuke atsedenaldirik gabe?

Kalidate lege berria asmatu duena.

### -Eta nori jarriko zenioke "bikain" bat?

Eguneroko lanean diharduten irakasle guztiei.

### -Zure ikasle garaian, zer ikasgai zenuen gustukoena?

Ez dakit gustuko ezer nuen...

### -Eta bereziki gorroto zenuen ikasgairik ba al zenuen?

Historia oso atrabesatuta nuen garai hartan.

### -Olentzero bazina, zer oparituko zenieke hurrei?

Zoriontsu izateko baliabideak eta jolasteko denbora.

### -Eta gurasoei?

Haurrekin egoteko eta jolasteko denbora eta pazientzia.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak.

### -Egindako azken oparia?

Liburuak, uste dut.

### -Eta jasotakoa?

Kamiseta bat.

### -Data bat?

Oporretako edozein egun.

### -Neska eta mutil izen bana?

Seme-alabenak esan beharko ditut... Ane eta Alex.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Egunkaria egunero eta DV eta Gara ere bai.

### -Gustuko telebista saioa?

Albistegiak eta pelikula onak.

### -Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano".

### -Liburu bat?

"Los pilares de la tierra".

### -Filme bat?

"El golpe" asko gustatu zitzaidan bere garaian. Orokorrean zine beltza eta misteriozkoak atsegin ditut.

### -Gustuko abestia?

"Salbadorren heriotzean".

### -Soinu bat?

Bibolinarena, ondo joz gero.

### -Usain bat?

Belar moztu berriarena.

### -Janari bat?

Edozein.

### -Ura ala...

Ardo beltza.



# OPEL Vectra



OPEL 

**Altamira tailerrak**  
**Goierriko zerbitzu ofiziala**  
Matxinporta 4, URRETXU ☎ 943 72 33 71





# Ondo pasa Gabonak

*Urretxuko giroa!!*

## Urretxuko Hamaika Tabernari

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz  
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba  
Avenida • Buhame • Aldapa

## Urte berri on!